

GOI-MAILAKO GIZARTERATZE-TEKNIKARIEN LAN-POLTSA BAT OSATZEKO DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUKO BALORAZIO BATZORDEA. (*Gobernu Batzordearen 2018ko uztailaren 12ko erabakia; 186. Zenbakiko BAO, 2018ko irailaren 26koa*).

IRAGARKIA

Aipatutako Batzordeak, aurtengo azaroaren 8an egindako bileran (2/18 akta), aurkeztutako erreklamazioak aztertu ditu, ondoren zehaztutakoaren arabera, eta erantsitako dokumentua onartzea xedatu du. Dokumentu horretan **ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA BAKOITZAK LORTU DUEN PUNTUAZIOA** jasotzen dira. Halaber, dokumentua GUFEn iragarki-taulan eta web-orrian argitaratzeko agindua eman du.

BALORAZIO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

- **Eduardo García Germán** hautagaiaren erreklamazioa, 3. hizkuntza-eskakizunari eta zerbitzu profesionalen merezimenduen zenbaketari buruzkoa. Lehen atalean, baietsi egin da erreklamazioa, ziurtagirien erregistro bateratuan hizkuntza-eskakizun duela egiaztatu baita. Bigarren atalean, berriz, ezetsi egin da erreklamazioa epez kanpo aurkeztu delako.
- **Haizea Olivar Alaña** hautagaiaren erreklamazioa, 3. hizkuntza-eskakizunari buruzkoa. Baiestea erabaki da euskarari dagokion titulazioa duela frogatzen duen ikasketen ziurtagiria baitu.
- **Nagore Villalibre Miguel** hautagaiaren erreklamazioa, GUFeko zerbitzu profesionalen puntuazioaren berrikuspenari eta Bermeoko ospitale psikiatrikoan egindako praktikei dagokien esperientziari buruzkoa. Erreklamazioa osorik ezestea erabaki da, zerbitzuei dagozkien puntuak ondo zenbatuta daudela eta eta praktika horiek ez direlako sartzen merezimendutzat jo daitezkeen artean.
- **Itxaso Otxoa Pérez** hautagaiaren erreklamazioa, alegatutako merezimenduen puntuazioari buruzkoa. Ziurtagiria aurkeztu du horretarako. Ezetsi egin da ziurtagiria ez datorrelako bat Administrazio Publikoetan eskatzen den eredu ofizialarekin; horrez gainera, ez dira deialdiko lanbide-kategorian eta -taldean egindako lanak.
- **Leire Sáez Pecino** hautagaiaren erreklamazioa, 3. hizkuntza-eskakizunari (C1) buruzkoa. Ezestea erabaki da ez duela alegatu eta justifikatu garaiz eta forma egokian.
- **Maialen Gezala, Anaïs Erostarbe Ciscars, Jone Mena García, Aitana Senlle Sanz, Lara Cid de la Paz Angulo eta Felipe Fernández Villota** hautagaien erreklamazioa, deialdi



honetarako prestatutako eskaera-orrian eskatutako titulua berariaz adierazteari buruzkoa. Erreklamazio horiek baiestea erabaki da, aurkeztutako eskaera-orrien zuzenketa gisa.

- **Mónica del Río Antolín** hautagaiaren erreklamazioa, aurretiazko zerbitzuen ziurtagiriaren aurkezpenari buruzkoa. Ezestea erabaki da, aurkeztutako txostena ez datorrelako bat Administrazio Publikoetan zerbitzuak egiaztatzen den ereduarekin.

Aurretik azaldutakoa dela bide eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoarekin bat etorrira, horrela eratutako lan-poltsa behin betikoa da eta, egintza honen bidez, GUFeko gerente andreami helaraziko zaio, aztertzeko, ebazpena eman dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

BATZORDEBURUA

IDAZKARIA